

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Behin betiko onestea zerga ordenantzaren aldaketa

Nola eta ez den erreklamaziorik aurkeztu udalaren kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon zen bitartean ((ALHAO, 125. zk., 2024ko azaroaren 4koa), behin betiko onetsi da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

#### UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA

##### 1. artikulua. Oinarriak eta izaera

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 2.1.h artikuluan xedatutakoaren arabera, 43. artikuluekin lotuta, udal honek eranskinean jasotako udal kirol instalazioak erabiltzeagatik eta horietan zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoa ezartzen da, zeina ordenantza honek arautuko baitu.

##### 2. artikulua. Xedea

1. Prezio publiko horren xedea da Iruña Okako Udaleko kirol instalazioak erabiltzea eta kirol instalazio horietan udalaren kirol arloak sustatutako zerbitzuak ematea.

2. Udal kirol instalazioen erabilera librea izango da eta herritar guztiek erabili ahal izango dute, Iruña Okako kirol instalazioen funtzionamendua eta erabilera arautzen duen araudi orokor-rrarekin bat etorritik, eta Iruña Okako Udaleko organoek zehazten dituzten kirol jarduera eta programen ondorioz, batzuetan, instalazioen edukieraren arabera murrizketak ezartzearen kalterik gabe.

##### 3. artikulua. Ordaindu behar dutenak

Ordaindu beharreko zerbitzu edo jardueren baliatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak behartuta daude prezio publikoa ordaintzera.

##### 4. artikulua. Obligazioa sortzea

Zerbitzua ematen hasten denean sortzen da ordaintzeko betebeharra, zerbitzua emateko edo instalazioetara sartzeko eskaeraren bidez.

##### 5. artikulua. Prezioa

5.1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoa hurrengo apartatuan jasotako tarifetan finkatutakoa izango da, udaleko kirol instalazioak erabiltzeko modalitate bakoitzerako.

5.2. Prezio publikoaren tarifak honako hauek izango dira:

##### ARRATE KIROLGUNEKO ABONATUAK.

Iruña Okako udalerrian bizi den edo ez den pertsona orok ordaindu beharko du, baldin eta alta eskaera formalizatu badu, instalaziora sartzeko kontrol sistemak gaitzen duen txartela badu eta txartel hori pertsonala eta besterenezina bada.

1. Abonatuen eskubideak. Mota guztietako abonatuak eskubide hauek izango dituzte:

- Kirol instalazio guztietarako sarbidea neguko eta udako denboraldi osoan.
- Arrate kirolgunean igerileku estalia, gimnasioa, aldagelak, spa, turkiar bainua, padel pistak eta udako igerilekua erabiltzea.
- Arrate futbol zelaian, harmailetarako sarbidea baino ez.
- Udal pilotalekuan, kantxaren doako erreserba, udalak ezarritako ordutegiaren eta baldintzen arabera.
- Udalak antolatutako jarduera zuzenduetara sartzea.
- Mugimint Kirol Txartela lortzeko eskubidea, sistemari atxikitako udalerrietako kirol instalazioak erabiltzeko aukera ematen duena (erakundeen arteko hitzarmenaren baldintzapean).

2. Abonatu motak:

A mota: 6-13 urte B mota: 14-18 urte C mota: 18 urtetik gorakoak. D mota: 65 urtetik gorakoak.

E mota: ehuneko 65etik gorako desgaitasuna.

3. Abonatuen alta:

- Alta eskaera (eskaera eredu).
- Ordainketen sistema berezian sartzeko eskaera.
- Hala badagokio, desgaitasuna justifikatzen duen agiria.

4. Abonatuen baja:

Baja hartu nahi duenak idatziz eskatu beharko du udal erregistroko bulegoetan, betiere adinez nagusia bada; adingabeen kasuan, amak edo aitak, edo, hala badagokio, tutoreak, eman ahal izango die baja.

Baja edozein unetan eskatu ahal izango da, eta kobrantza instalazioaren erabilera egunen arabera egingo da, eta jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera izango da eraginkorra.

Abonatuak beren datu pertsonaletan izandako edozein aldaketaren berri eman beharko dute (helbidea, telefonoa, kontu zenbakia, adina -ordainketa tarifa aldatzeko-, errolda, familia egoera eta abar).

Ordainagiriak edozein arrazoiengatik ordaindu ezean edo itzuliz gero, abonatuari baja automatikoa emango zaio, administrazioaren akatsa izan ez bada. Zor diren kuotak ordaindu direla agiri bidez egiaztatu ondoren aktibatuko da abonua.

Urritik maiatzera, helbideratutako ordainagiri bakoitzeko hileko kobrantzaren bidez eskatuko dira kuotak, edozein banku erakundetan, edo erabiltzailearen altaren eta bajaren artean dagoen zati proportzionalaren bidez. Ekaina, uztaila, abuztua eta iraila eskudirutan edo kreditu/zor-txartelean ordainduko dira Arrate instalazioetako leihatilan.

Denboraldi erregularrean ordaindutako pertsonen kuotak:

ABONAMENDUA, PERTSONAKO.

A mota: 6-13 urte	9,50 euro
B mota: 14-18 urte	15,90 euro
C mota: 18 urtetik gorakoak	25,40 euro
D mota: 65 urtetik gorakoak	21,20 euro

E mota: ehuneko 65etik gorako desgaitasuna.

A	B	C
8,50 euro	13,80 euro	21,20 euro

BIZIKIDETZA UNITATEAREN ABONUA.

TITULARRA	BIGARREN PERTSONA			HIRUGARREN PERTSONA ETA GAINERAKOAK		
	A	B	C	A	B	C
25,40€	6,40 euro	10,60 euro	16,90 euro	3,20 euro	5,30 euro	8,50 euro

Abonatu gabeko erabiltzaileentzako udako denboraldiaren prezioa.

DENBORALDIKO BANAKAKO BONUA.

6 eta 18 urte bitartekoak	60,00 euro
18 urtetik gorakoak	90,00 euro
65 urtetik gorakoak	75,00 euro

HILEKO BANAKAKO BONUA.

6 eta 18 urte bitartekoak	20,00 euro
18 urtetik gorakoak	30,00 euro
65 urtetik gorakoak	25,00 euro

SARRERAK - NEGUKO DENBORALDIA.

Neguko eguneko sarrera (igerilekua + gimnasioa barne)	8,50 euro
Eguneko sarrera (spa barne)	15,90 euro
16 urte edo gehiagokoak igerilekuan egunero sartzea	3,10 euro
Eguneko sarrera (dutzak baino ez):	
– Banakakoa	1,60 euro
– Taldeak	1,10 euro
Antolatutako taldeentzako sarrera: Igerileku estaliko kale bat alokatzea:	
– Banakakoa	25,70 euro orduko + sarrera
– Taldeak	15,40 euro orduko + sarrera

UDAKO SARRERAK / ESTALI GABEKO IGERILEKUA.

	6 ETA 18 URTE BITARTEKOAK	18 URTETIK GORAKOAK	65 URTETIK GORAKOAK
	B	C	D
LANEGUNA	2,10 euro	12,30 euro	2,10 euro
JAIEGUNA	2,10 euro	16,40 euro	3,20 euro
TALDEA, LANEGUNEAN	1,10 euro	8,20 euro	1,10 euro
TALDEA, LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN	1,10 euro	12,30 euro	2,10 euro

Kolektiboak edo taldeak: 10 pertsona baino gehiagoko talde antolatuak dira, hau da, udalekuak, ikastetxeak, irabazteko xederik gabeko edo irabazteko xedea duten kirol entitateak edo antzekoak. Udalerriko ikastetxe publikoak salbuetsita daude.

## UDAL IKASTAROAK.

IGERIKETA	HASTAPENA		TARTEKO MAILA		AURRERATUA	
	EURO/ IKASTURTEA	EURO/ HIRUHILEKOA	EURO/ IKASTURTEA	EURO/ HIRUHILEKOA	EURO/ IKASTURTEA	EURO/ HIRUHILEKOA
ASTEAN ORDU 1, ABONATUAK	186,40 euro	62,10 euro	163,10 euro	54,40 euro	139,80 euro	46,60 euro
ASTEAN ORDU 1, ABONATU GABEAK	232,90 euro	77,60 euro	203,80 euro	67,90 euro	174,70 euro	58,20 euro
ASTEAN 2 ORDU, ABONATUAK	279,50 euro	93,20 euro	244,60 euro	81,50 euro	209,70 euro	69,90 euro
ASTEAN 2 ORDU, ABONATU GABEAK	349,40 euro	116,50 euro	305,70 euro	101,90 euro	262,10 euro	87,40 euro

HAURRENTZAKO IKASTAROAK	HASTAPENA	
HAURRAK	EURO/ IKASTURTEA	EURO/ HIRUHILEKOA
ASTEAN ORDU 1, ABONATUAK	78,80 euro	26,30 euro
ASTEAN ORDU 1, ABONATU GABEAK	98,50 euro	32,80 euro
ASTEAN 2 ORDU, ABONATUAK	157,60 euro	52,50 euro
ASTEAN 2 ORDU, ABONATU GABEAK	196,90 euro	65,60 euro

Abonatuta ez dauden pertsoneri pasabide mekanizatua emango zaie instalaziora sartzeko ikastaroa ematen den ordutegian eta egunetan.

Ikastaroetan izena emateko, ikastaroaren urteko ekainaren 1a baino lehen izan behar da abonatu.

## GIDARITZAPEKO UDAL JARDUERAK.

Arrate kirolguneko jarduerak Urtero argitaratuko dira udalaren webgunean eskainiko diren jarduerak.

Prezioa orduko	3,10 euro
Bonua (11 klase)	30,90 euro

Erabiltzaileei jarduera ordu kopuru jakin baterako doakotasuna ezartzeko eskubidea gordetzen du udalak.

## UDAL PILOTALEKURAKO SARBIDEA.

Ordu 1	3,20 euro
Egun osoa, ekitaldiak egiteko	103,10 euro

## ARRATEKO FUTBOL ZELAIRAKO SARBIDEA.

4 ordu	74,10 euro
Egun osoa	158,80 euro
Asteburua	635,30 euro
Astea (5 egun)	2.117,70 euro

Salbuetsita daude udalerriko kirol klubak eta entitateak.

## PADEL PISTETARAKO SARBIDEA.

Abonatuak	12,40 euro/1:30
Abonatu gabeak	51,60 euro/1:30

Udalak padel pistetara sartzeko arauak arautuko ditu.

Kirol materialaren salmenta.

Bainu txanoak	2,50 euro
---------------	-----------

## 6. artikulua. Klausula gehigarriak

6.1. Baldintza meteorologikoez ez dute eskubiderik emango instalazioetara sartzeko kuota itzultzeko.

### ARAU OSAGARRIAK

1. Ordenantza honen 5. artikuluan ezarritako prezio publikoa udalaren kirol instalazioetan bertan ordainduko da, horretarako prestatutako terminalen bidez, eta, hala badagokio, udalak baimendutako erakunde laguntzaileetan horretarako gaitutako kontuetan sartuz, edo dirubiltzetako erregelamendu orokorrean araututako edozein bide erabiliz, betiere instalazioak erabiltzen hasi aurretik edo dagozkion zerbitzuak eman aurretik.

2. Ezarritako tarifak bat datoz bertan jasotzen diren zerbitzu edo erabilera bakoitzarekin, eta prezio publikoaren ordainketak instalazio osagarriez gozatzeko ahalmena ematen dio erabiltzaileari, hala nola dutxez, aldagelez eta abarrez. Hala ere, oro har, eskaintzen edo baimentzen den eta tarifen aurrekarian zerrendatzen den jarduera, zerbitzu edo erabilera bakoitza independentea da berez, eta aldi berean bi edo gehiago baliatzeak horietako bakoitzari dagozkion prezio publikoak ordainaraztea ekarriko du.

3. Arduradunak prezio publikoak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erakusteko eskatu ahal izango dio erabiltzaileari, interesduna instalazioen barruan dagoen bitartean eta, nolahi ere, instalazioetara sartzen utzi aurretik.

4. Instalazio jakin batzuk erabili ahal izateko, fidantza edo gordailu bat jarri beharko da, instalazioetan gerta daitezkeen kalteei erantzuteko. Fidantza edo gordailu horren zenbatekoa ez da 3.000,00 eurotik gorakoa izango, eta inola ere ez da prezio publikotzat hartuko, eta erabiltzaileari itzuliko zaio, erabilera amaitzean.

5. Era berean, udalaren kirol instalazioetan ekitaldi, ospakizun edo ikuskizun publikoak egiteko, Iruña Okako Udalaren berariazko baimena beharko da. Baimen horretan, erabiltzeko baldintzak eta denbora zehaztuko dira, eta eskatzaileak inguruabarren arabera ordaindu beharreko kanona finkatuko da.

6. Iruña Okako Udalak kirol programak garatzeko hitzarmenak edo itunak hitzartu ahal izango ditu kirola sustatzen duten klub, elkarte, federazio, entitate edo erakundeekin, hitzarmen edo itun horietan zehazten diren kontraprestazioekin, funtzionamenduan eraginkortasun handiagoa izan dezaten.

7. Udalak kudeatutako kirol programak garatzeko hitzarmenak eta itunak egin ahal izango dira klubekin, federazioekin, kirol enprekin edo pertsona juridiko eta fisikoekin, hitzarmen edo itun horietan zehazten diren kontraprestazioekin, eta alderdi kontratatzaileek luzatu ahal izango dituzte adostutako aldizkako berrikuspenetan.

8. Dagokion salbuespena baloratu ahal izango da, baldin eta udalak eta beste alderdi batek hala erabakitzen badute eta Iruña Okako biztanleentzat kultura, kirol eta gizarte intereseko edo/eta interes orokorreko arrazoiak badaude. Kasu horretan, gaitutako kirol zinegotziak edo udal teknikariak dagokion balorazioa egingo du, eta dagokion dokumentua egingo du gertaera hori jasotzeko.

- Prezio publikoek ez dituzte barnean hartzen muntaketa lanak edo aparteko prestatze lanak.
- Prezio publikoak ordaintzeak ez du ahalbidetzen ez publizitatea jartzea, ez hirugarrenei sarrerak kobratzea, ez salmentarako postuak jartzea.
- Prezio publikoek ez dute beren baitan hartzen dagokion kirolerako materiala.
- Talde antolatuetarako ezarritako prezioetan ez da sartzen begiralearen/en zerbitzua.
- Abian jartzen den jardueretakoren bat, ezaugarri bereziak edukitzeagatik, ezin bada sailkatu ordenantza honetako jardueren artean, udalak tasa berezi bat erabakiko du berariaz, jardueraren eskaintzarekin batera jakinaraziko dena.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Xedapen gehigarria

Ordenantza fiskal honen arauak, arrazoi sistematikoak direla medio, indarrean dagoen legeriaren eta hori garatzeko beste arau batzuen alderdiak kopiatzen badituzte, automatikoki aldatuko edo ordeztuko dira eratortzen diren legezko arauen aldaketa kopiatzen denean.

Azken xedapena

Ordenantza fiskal hau indarrean egongo da ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetzen den arte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Iruña Oka, 2024ko abenduaren 18a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**